

## Aitor Madariaga Zabala -k bere tesia irakurri du

2015/05/28

Maiatzak 25ean, goizeko 10:00etan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Aitor Madariaga Zabala Doktoregaiak bere doktore-tesia aurkeztu zuen Polo Garaiako Auditorioan. Tesiaren izenburua Surface Integrity and Isothermal Low Cycle Fatigue of turned Inconel 718 workpieces eta tesi zuzendariak: Pedro José Arrazola eta Jon Ander Esnaola. Gainera Bikain kalifikazioa lortu zuen.

Epaimahaia horrela osatu zuen:

- Mahaiburua: Koldo Mirena Ostolaza Zamora (Industria de Turbo Propulsores S.A.) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Dragos Axinte (The University of Nottingham) Dk. Jn.
- Mahaikidea: María Aranzazu Linaza Aberasturi (Industria de Turbo Propulsores S.A.) Dk. And.
- Mahaikidea: Lander Galdos Errasti (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.
- Idazkaria: Ireneo Torca De la Concepción (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.

Osagai aeronautikoen mekanizazioa kritikoa da, baldintza egokiak aukeratu ezean amaierako portaeran eragina izan dezakeelako. Tesi honetan Inconel 718 aleazioaren gainazalaren integritatean eta nekearekiko bizitzan mekanizazio baldintzek duten eragina aztertu da. Emaizta moduan, nekearen eredu lokal bat proposatu da, mekanizatutako piezen gainazalaren integritatea eta nekearekiko bizitza erlazionatzea ahalbidetzen duena.

